

Elgoibar 1332. zenb.  
XXXI. urtea - 2024/06/14



# Txapeldunen erronka





## **LOREA ARREGI** (Eibar)

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) Gradu 1. maila

### ***“LEINNEk bide asko zabaltzen dizkigu, nahi dugun arloko proiektuetan lan egin ahal izateko”***

► **Zergatik aukeratu zenuen LEINN Gradua ikastea?**

LEINN aukeratu nuen zerbait desberdina bilatzen nirelako eta, ate irekietara etorri ondoren, argi ikusi nuelako hori zela ikasi nahi nuena. Bestalde, inoiz ez dut garbi izan zer ikasi nahi nuen eta iruditzen zait LEINNEk bide asko zabaltzen dizkigula, nahi dugun arloko proiektuetan lan egin ahal izateko.

► **Nola ari da izaten LEINNEn bizitako esperientzia?**

Egia esan, esperientzia oso aberasgarria eta berezia izaten ari da, eta orain arte bizi izan ez ditudan gauzak bizitzen ari naiz. Gainera, alderdi guztietan begiak zabaltzeko balio izan dit; zeharo desberdina den metodologia batekin ikasteko eta jende desberdinarekin lan egiteko aukera eman dit.

► **Zer da gehien gustatzen zaizuna Mondragon Unibertsitatetik? Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduari; nola egiten da hori?**

Mondragon Unibertsitatetik gustatzen zaidana da bide asko zabaltzen dituela, bai graduak irauten duen bitartean baita bukatzean ere. Lehen egunetik gure enpresa sortu genuen. Horretarako, edozein enpresak egin behar dituen pauso berdinak eman behar izan genituen, oraindik ezagutzen ez genuen mundu baten, baina politena hori dela uste dut, beste unibertsitateetan erakusten den teoria hori aplikatzen ikasten dugula.

► **Nolakoa da taldean lan egitea?**

Taldean lan egitea lan egiteko modu bikaina dela uste dut, bakarrik egin ezin dituzun gauzak egitera heldu zaitezkeelako. Horrez gain, besteengandik ikastea ere ahalbidetzen digu eta taldekideengan errespetua eta enpatia garatzen ere ikasi dugu. Egia da taldean lan

egitea ez dela ematen duen bezain erraza, baina lehenengo urtean gaude eta oraindik ikasteko asko gertzen zaigu.

► **Zer proiektutan ari zarete lanean LEINNEn barne?**

Aurten, BetiGazte proiektuan ari gara lanean. Aurten hasi den proiektu bat da eta sei taldekide gaude bertan. Gure proiektuan diziplina askotariko tailerrak eskaintzen ditugu adineko pertsonentzat. Biztanleriaren sektore hori gero eta handiagoa da gizartean, eta uste dugu kalitatezko entretenimendu-zerbitzuak eskaini behar dizkiegula, gazteen eta adinekoen artean zubiak eraikiz. Oraingoan, Gasteizko hainbat egoitzatan eta Zumarragako udaletxean egin ditugu tailerrak eta oso pozik gaude lortutako emaitzekin.

► **Zer nolakoa izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?**

Atzerriko esperientzia ezin hobea eta oso berezia izan da. Berlinen egon gara hilabete oso batez, hango ekonomia ezagutzeko eta gure proiektuekin jarraitzeko asmoz. Esperientzia honek asko lagundu dit nire burua hobeto ezagutzeko eta taldekideekin harreman estuagoak lotzeko ere bai. Unibertsitateko zeregin guztiez gain, Berlin ezagutzeko denbora ere izan dugu eta asko gustatu zait.

► **Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?**

Egia esan, oraindik ez daukat asmo zehatzik, baina gizartean inpaktu positiboa izango duten proiektuak egin nahi ditut, alde sozialarekin lortutakoak gehienbat. Gainera, BetiGazte proiektua garatzen jarraitu nahi dut eta esperientzia horretatik ahalik eta gehien ikasteko asmoa dut.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Edurne Izagirre

Psikologoa

## Iritzi askea?



***"Maskulinitateak berea du norberetasun hori; ni neure pertzepzio eta iritziekin baliozkoa naiz eta naizen modukoa onartu behar nauzue"***

Jakin badakigu genero sozializazioa dela eta, gizonetzoei euren desio, gogo eta iritziak balioztatzen zaizkiela, eta haien arabera jokatu eta entzunak izatea eskubide unibertsaltzat dutela. Emakumeak, aldiz, besteen iritzia eta gogo entzun, eta geuretzat eroso izan daitekeen eta bestearen nahiak betetzen dituen hortan kokatzen gaituzte, bestearen desioa geure erosotasunaren gainetik ezarri beti ere.

Berdintasunaren aroan, desoreka nabarmenaren ondorioz ezarritako legeak "gaitze edo indartze" bidea jorratzera bultzatu gaitu emakumeak, baina gizonetzkoak enpatiarene bidean jarri gabe. Ondorioz, guk ikasi dugu geure gogo eta nahiak entzuten, eta, hein batean, gizartean horiek bideratzeko aukerak ere ireki dira. Baina aurrez aurreko erlazioetan, erdibide hori bilatzeari utzi diogunean inork ez du erreleborik hartu.

Hori, noski, ulermena errazteko orokortasun bat da. Genero identitate askotarikoak daude, baina genero sozializazioan ez da eredu binarioa eraldatu eta bere eragina izaten jarraitzen du, maskulinitatea eta feminitatea balio kontrajarri eta absolutotzat aurkeztuz. Guztiok ezagutzen dugun eredu hori lengoia komuna da, eta horregatik erabilgarria da analisiak egiteko.

Maskulinitateak berea du norberetasun hori; ni neure pertzepzio eta iritziekin baliozkoa naiz eta naizen modukoa onartu behar nauzue; gustukoa ez bazaizue, zuen arazoa da. Ez al dugu guztiok idealizatu eta geure egiten saiatu, elkarbizitza eta komunikazioa zailduz? Ez al dugu gutxietsi enpatiak, bestearen lekuan jarri eta erdibidea bilatzeak, duen balioa elkarbizitza eta komunikaziorako? Iritzia, askea eta balekoa da, inor gain hartzen ez duen bitartean; etika egon behar da norbere estimuaren gainetik.

**Oztopo guztien gainetik, aurrera goaz**

Hauteskunde zikloa amaituta, EH Bildutik publikoki adierazten dugu ez gaudela inolaz ere ados Udalak udal jabetzako materiala lagatzeko hartutako neurriekin, ezta hartu duen moduarekin ere. Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-kanpainaren hasieran, hirigintzako zinegotziak jakinarazi zigun udal jabetzako materiala alderdi politikoei lagatzeko irizpideetan aldaketa bat egon zela, eta, beraz, hemendik aurrera lagapena egiteko, material hori jasotzeaz, lekualdatzeaz, muntatzeaz eta entregatzeaz arduratu behar genuela. Era berean, jakinarazi ziguten aldaketa horrek elkarreak ez zirenei eragiten ziela, egungo udal-baliabideekin ezinezkoa zelako eskaera guztiei erantzutea. PNVko zinegotziak emandako argudioak ikusita, hauxe gure iritzia:

1. Alderdi politikoak elkarreak ez diren erakunde pribatuekin parekatzeak zentzugabea iruditzen zaigu, argi dagoelako, indarrean dagoen legeriak jasotzen duenez, "alderdi politikoak gure sistema demokratikoan funtzio publiko garrantzitsua" betetzen duten erakundeak direla. Planteatutako diskriminaziozko tratua are ulertezinagoa da kontuan

hartzen badugu alderdi politikoen eskaera gehienak hauteskunde-kanpainan egiten direla, "ordezkaritza politikorako eta herriaren borondatea osatzeko tresna" izateak dimentsio osoa hartzen duenean.

2. Eskaera guztiei erantzuteko ezintasunaren argudioa funtsik gabekoa iruditzen zaigu. Alderdi politikoen materialen eskaria elkarteenarekin konparatuta oso txikia da, eta ez du nabarmen eragiten. Are gehiago kontuan hartuta beste alderdi batzuek askotan azpiegiturak azpikontratatzeari aukeratzeko dutenean. Badirudi neurri hau EH Bilduren jardura politikoari oztopoak jartzera bideratuta dagoela, udal materialaren zerbitzua hobetzera baino.

3. Kontraesankorra iruditzen zaigu hirigintzako arduradunarekin izandako elkarrizketan jakinaraztea funtzionamendu-aldaketari buruzko hausnarketa-prozesuan daudela, eta hilabetera jakinaraztea hausnarketa-prozesua bukatutzat ematen dutela eta hartutako erabakia berresten dela, guri argudioak aurkezteko aukerarik eman gabe, gure desadostasuna ondo ezagutzen zutenean.

EH Bildu Elgoibar



IX. URTEURRENA

**Garbiñe Iriondo Aristondo**

2015ko ekainaren 13an hil zen.

***Izan zarena, erakutsi duzun kemena,  
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

**Jesus Mari Txurruka Azpiazu**



2023ko ekainaren 4an hil zen,  
74 urte zituela. Haren oroimenez

I. urteurrenako meza izango da,  
domekan, ekainaren 16an, 12:30ean,

Mendaron Azpilgoetako elizan.

Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Betirako izango zaitugu gogoan.***

Maitasunez, etxeok





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Nire garaje aurrean aparkatzen dute askok:**

"20 urte daramatzat arazo honekin. Egunero izaten ditut ibilgailuak garajeko atean, eta gidari askok gainera modu txarrean erantzutzen didate zerbait esaten badiet. Bozina jo izan dut auto jabearen atentzioa deitzeko, eta azaltzean gainera, niri eskatu izan didate pazientzia, denbora gutxiko kontua izan dela eta lasai egoteko esanez. Nik ordaindu egiten dut nire garaje aurrea libre egon dadin, eta herritarrei eskatu nahi diet hor aparkatzeko debekua errespetatzea. Hamaika aldiz kexatu naiz Udaltzaingoan ere, baina ez dute soluziorik jartzen. Bizikidetzan egoki baterako arauak errespetatzea ezinbestekoa da".



### **Udalak ezingo al luke akordioaren bat egin Anayak enpresa egon zen Urazandiko lursailaren jabearekin?:**

"Garai batean Urazandiko lursail hau aparkaleku moduan erabiltzen zen, baina egun batetik bestera itxi egin zuten eta ordutik ezin da bertan aparkatu. Badakigu lursail hori pribatua dela, baina beste lursail pribatu batzuekin ere egin izan ditu Udalak akordioak, eta iruditzen zaigu honekin ere zerbait egitea egongo litzatekeela. Urazandin aparkatzeko arazo handia dago, eta espazio honetan auto asko kabitzen dira. Eredu hori hutsik egonda, aparkatu ezinda bueltara ibili behar izatea gogaikarria da". BARRENEK Udalera jo du, eta Hirigintza Saitetik ondorengo erantzun dute: "Eskerrik asko Udalari iradokizun hau luzatzeagatik. Aztertuko



dugu. Bestalde, Udalari edozein eskaera edo iradokizun HAZen bitartez egin daitekeela gogorarazi nahi nuke".



### **Txalo bat Arriagako autobus geltokian markesina jartzeagatik:**

"Eskertzen dut Arriagako industrialde pareko autobus geltokian markesina jarri izana, eurrant egoten nintzelako bestela autobusaren zain. Beste noranzkoan ere markesina jartzea eskertuko nuke".



## Osasun Zentro berriaren proiektua esleitu du Udalak

Osakidetzak Atxurra Zelaieta Arquitectos S.L.P. eta Bear Arquitectos S.C.P. enpresek osatutako aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu dio Elgoibarko osasun-zentro berriaren proiektua idazteko ardura. Proiektu horretarako, Osasun Sailak 3,6 milioi euro inguruko inbertsioa egiteko konpromisoa hartu du, eta aurreikusten du obrak 2025ean hasiko direla, 24 hilabeteko exekuzio-epearekin.

Elgoibarko Osasun Zentro berriak 2.200 metro koadro inguruko azalera izango du, eta Elgoibarren, Mendaron eta Soraluzen bizi diren pertsonen (17.861 pertsona guztira) emango die zerbitzua. Administrazio-eremu bat, familia-medikuntzako eta pediatriako gunea, emakumeen arreta emateko gune bat, fisioterapia-gune bat,



eta Osakidetzako langileentzako gune bat izango ditu. Guztira, medikuntzako eta erizaintzako 23 kontsulta inguru izango ditu; sendaketa-gela, ekografia-gela, odola ateratzeko gela, larrialdigela, edoskitze-gela, eta erditzea prestatzeko gela, besteak beste.

### Uztailaren 12ra arte aurkeztu daitezke Lila Sarietarako hautagaiak

Lila Sarien hirugarren edizioa antolatu du Elgoibarko Udalak, herrian gizonen eta emakumeen aukera berdintasunaren alde lan egin duten norbanakoei edo elkartei aitortza egiteko. Udalerriko edozein erakunde edo pertsona fisikok aurkeztu ditzake sarietarako hautagaitzak, eta horretarako azken eguna uztailaren 12a izango da. [Labur.eus/lilasaria2024](http://Labur.eus/lilasaria2024) estekaren bidez aurkez daitezke proposamenak online, eta fisikoki, Aita Agirre kulturguneko sarreran dagoen kutxan sartuta. Epaimahaia Lilaren Mahaiko hiru kidek, Berdintasun saileko teknikariak, Berdintasun arloko arduradunak eta alkateak osatuko dute. Irabazleak garaikurra eta 500 euroko saria jasoko ditu, irailaren 19an Lilan bertan egingo duten ekitaldi publikoan. Lehen Lila Saria Sanlo Eskubaloi Taldeak jaso zuen emakumeen kirola sustatzeko egindako lanagatik, eta ia, Itziar Ajuria Elgoibarko Ikastolako lehen andereñoari eman zioten.

### Euskara balioan jartzeko 'Bertatik bertara' kanpaina hasi du Mendaroko Udalak UEMAREN ekimenez

Udalerri euskaldunetan bertako hizkuntza nabarmentzeko ekimena da UEMAK sustatutakoa, eta Mendarora datozenak euskaraz gozatzerantz animatu nahi ditu, bai eta zerbitzuen sektoreko langileak zerbitzua euskaraz ematera ere. Orohar, kanpainaren helburu nagusia udalerri euskaldunak balioan jartzea da, eta Mendaroko Udalak bat egin du kanpainarekin.

Hala, euskaraz zerbitzua ematen duten Mendaroko taberna eta jatetxeetan mahai-gainekoak utziko dituzte, bai eta kanpainari buruzko informazioa eta bost hizkuntzatarantz itzulita dagoen hiztegi txikia ere. Gainera, QR baten bitartez, ekimenari buruzko informazio gehiago eta euskal abestiez osatutako erreproduktio zerrenda eskuratzeko aukera ere izango du bezeroak. Herriko merkatari eta ostalariei ere eskuorriak banatuko dizkiete, bezeroekin euskaraz egitera animatzeko.

### Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian

Gaur arratsaldean odol ateratzeak egingo dituzte Elgoibarko Jubilatuen Biltokian, 16:30etik aurrera. Txanda hartu behar da, 623 328 408 telefonora deituta edo [gotatanta.eus](http://gotatanta.eus) webgunean sartuta.

## Benantzio Otaegi hil da, 29 urtez Elgoibarko parrokoa izandakoa

**B**enantzio Otaegi (Azpeitia, 1943) hil zen martitzenean, Elgoibarko San Bartolome Parrokiako parrokoa izan zena.

Soraluzeko parrokia utzi ostean iritsi zen Benantzio Otaegi Elgoibarrera, 1993an, eta 29 urtez izan zen Elgoibarko parrokoa. Parrokiaz aparte, Elgoibarko auzoetako elizetan ere urteetan jardun zen mezak ematen. 2022ko urtarrilean laga zuen Elgoibarko parrokia, eta urte bereko San Bartolome Eguneko mezan egin zituen agurra.

Benantzio Otaegi 1943an jaio zen Azpeitian. 10 urte zituela seminarioan sartu zen, eta sei bat urtez aritu zen bertan ikasten, Batxilergoa amaitu zuen arte. Tuteran jarraitu zituen ikasketak gero, eta ondoren, Donostiako seminarioan sartu zen. 1970ean hasi zen apaiz lanetan, Usurbilen. Gerora, Arrasateko San Andres parrokiara iritsi zen, eta 1988an Soraluzera. Bost urte egin



zituen han, eta ondoren, Elgoibarrera etorri zen. Erretiroa hartu ostean, Donostiako Gotzaitegiak Antiguako auzoan duen seminarioan izan du bizitokia.


### Gaur amaitzen da Robotika eta Bizilaben izena emateko epea

Robotika eta Bizilabe ikastaroetan izena emateko azken eguna gaur da. Robotikan LH1etik LH4ra arteko umeek har dezakete parte. Besteak beste, roboten eta bideojokoen sorkuntza eta programazioa landuko dituzte, eta ingeniarietako eta programazioko oinarriko kontzeptuak ikasiko dituzte, sormena eta trebetasun teknikoak sustatuz. Bizilaben, berriz, 10 eta 16 urte arteko gazteek eman

dezakete izena. Tailerrak, proiektuak eta txango zientifiko eta teknologikoak egingo dituzte, proiektu berritzaileak garatu eta zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa pizten duten jardueretan parte hartu ahal izango dute. IMHN izango dira eskolak, urritik maiatzera bitartean. Izena emateko:

- Bizilabe: [bizilabe.elhuyar.eus/eu/elgoibar](http://bizilabe.elhuyar.eus/eu/elgoibar)
- Robotika: [doplay.es/robotika-dibertigarria](http://doplay.es/robotika-dibertigarria)

### Gizonezko bat atxilotu dute, auto bati kalteak eragiteagatik



Aita Agirreko aparkalekuan aparkatuta zegoen kotxe bati eraso egin zion astelehen gauean gizonezko batek. Makila bat eskuan hartuta, autoari kolpeka ikusten den bideo bat zabaldu da sareetan, eta bideo honetan ikus daitezke kotxeak jasandako ondorioak. Bi udaltzain bertaratu ziren, eta gizonezkoa identifikatu ostean, Eibarko Ertzaintzaren komisaldegira eraman zuten. Gaur atxilotuta pasatu zuen, eta martitzen goizean epailearen aurrean deklaratu zuen.

## Langabezia datu onak laga ditu maiatzak Debabarrenean

**M**endaron izan ezik, Debabarreneko beste herri guztietan behera egin du langabeziak maiatzean, eta %10,19ko tasa orokorra laga du eskualdean. Halere, bi langabe gehiago zenbatu dituzte Mendaron, eta 77tik 79ra egin du gora lan bila dabilzaten kopuruak. Elgoibarren, aldiz, apirilean baino 19 langabe gutxiago daude enplegu bulegoetan erregistratuta. Dena dela, eskualdeko langabezia tasaren azpitik daude Mendaro zein Elgoibar.

489 langaberekin hasi zuen 2024a Elgoibarrek eta 71rekin Mendarok, eta Debabarreneko sei herritan (Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) 2.677 langabe zeuden guztira urte hasieran, orain baino 40 gehiago.

Hego Euskal Herriari erreparatuz gero, 136.201 langabe daude, apirilean baino 3.593 gutxiago, enplegu bulego publikoetan zenbatutakoaren arabera.

Hona hemen 2024ko maiatzeko datuak Debabarrenean, herriz herri:

Eibar	1.546	%12,34
Elgoibar	488	%9,15
Mendaro	79	%8
Deba	148	%5,61
Mutriku	179	%6,82
Soraluze	197	%11,27
Debabarrena	2.637	%10,19



### Eskola garraiorako beste geltoki bat egokitu dute San Roken

Eskola garraiorako geltoki berria egokitu dute San Roken, eta honako ordutegia izango du:

- 07:30 - 08:30
- 14:00 - 14:30
- 16:00 - 16:30

Ordutegi horretan debekatuta egongo da bertan aparkatzea.

### Iktusari buruzko hitzaldia antolatu dute eguaztenerako

Duintasunak eta Euskadiko Pertsona Antikoagulatuen Elkarteak iktusari buruzko hitzaldia antolatu dute ekainaren 19rako, *Iktus Kodea* izenburupean. Iktusaren sintomak ezagutzeko argibideak emango dituzte, eta horrelako kasuen aurrean nola jokatu behar den azalduko dute. 18:30ean izango da saioa, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Palestinaren aldeko manifestazioa, gaur

Herritar talde batek deituta, Palestinari elkartasuna adierazteko manifestazioa egingo dute gaur, Elgoibarren. "Elgoibarko pertsona talde bat gara, komunitate musulmanekoak barne, eta Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzeaz gainera, palestinar herriari elkartasuna adierazi nahi diogu", esan dute manifestazioaren deitzaileek. Maalako parketik irtengo dira manifestazioan, 19:30ean.



## Pleno Txikia egin dute Elgoibarko Udalean, 'Agenda 2030' egitasmoaren barruan

Elgoibarko Udalak eta Debegesak pleno txikia antolatu zuten Ikastolako, Herri Eskolako eta Elgoibar BHI institutuko ikasleekin *Agenda 2030* egitasmoaren barruan. Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria gaia landu dute aurtengo ikasturtean, eta kontzientziazio kanpaina antolatu dute. Ekimenaren baitan, hiru zentroetako ikasleek hainbat eredu landu dituzte, hala nola, kalean zintzilikatzeko kartelak, etxeetan banatzeko esku-orriak, eta gazteleku eta ludotekako argi etengailuetan jartzeko pegatinak. Ekimenaren helburua zera izan da: Garapen Jasangarriko Helburuen garrantziaz eta



horiek lortzeko neurriak hartzeko beharraz herritarrek sentsibilizatzea.

### Uztailean hasiko dituzte Herri Eskolako patioa hobetzeko lanak



Herri Eskolako patioaren aldameneko fatxadetan itxiturak eraikitzeko lanak uztailean hasiko dituzte, eta bi hilabeteko epean amaitzea aurrekusi dute arduradunek. Proiektu hau Construcciones Echaide SARI esleitu dio Udalak 190.553,21 euroko aurrekontuarekin. Lan honi esker aire zabaleko jarduerak urte osoan zehar egin ahal izango direla adierazi dute Udaletik.

### Barrutia Optika-Entzumen zentroa saritu dute

Tknikak antolatutako Ekintzailetasun Sariak banatu zituzten aurreko astean Bilbon, eta sarituetako bat Elgoibarko Barrutia optika-entzumen zentroa izan zen. Sari horien bidez, Lanbide Heziketako ekintzailatza-programetako bakoitzeko proiektu onenak nabarmendu eta aitortzen dira; zehazki, Ikasempresak eta Urratsbat programetakoak. Besteak beste, negozio ideia bideragarriak diren aztertzen dituzte Urratsbat programan, eta halaxe egin zuen Iraia Barrutiak, ireki asmo zuen Optika-Entzumen zentro batekin, Meka Lanbide Eskolan. Bere proiektua izan da sarituetako bat 2022 eta 2023. urteetan sortu zituzten Urratsbat



Enpresen artean. Emakumeek gidatutako enpresa onenaren saria jaso du Barrutiak, hain zuzen ere.



*“Herri honek egin didan errekonozimendurik handiena erraldoia egitea izan da”*

## JON LIZARRALDE

Dantzaria eta dantza irakaslea

✍️ Ainhoa Andonegi    🗣️ Jon Lizarralde

Orain dela 42 urte hasi zen Jon Lizarralde (Elgoibar, 1960) dantzan, 21 urte zituela, eta ordutik dantzari emanda bizi izan da. Dantzari izateaz gain, dantza irakasle ere izan da, eta makina bat gazteri irakatsi die dantzan. Irakasteaz gain, azken 25 urteotan dantzari gazteak prestatzen aritu da txapelketetarako, eta horietako batzuk agurra dantzatu zioten maiatzeko jaialdian Kalegoen plazan, eskerrak emateko. 38 aldiz egin du dantza San Bartolome eguneko soka-dantzan eta 36 aldiz Nazioarteko Folklore jaialdian. Ez dira marka makalak. Euskal dantzako ikasleen kurso amaierako dantza jaialdia egingo dute iluntzean Kalegoen plazan, eta gero, erretiroa hartuko du.

### Erabakia behin betikoa al da? Egia al da erretiroa hartuko duzula?

Bai, erabakia hartuta daukat. Dantza ikuskizunetan jende gaztea ikusten dut, dantzari gazte on asko datoz atzetik, eta sarri galdetu izan diot nire buruari ea zer egiten dudan nik jende horren artean. Iaz 50 urte bete zituen Haritz dantza taldeak, eta urriaren 21ean egin genuen ospakizun ekitaldietako azkena. Haren ostean Haritzeko zuzendaritzakoei esan nien laga egingo nuela, eta azkenean ikasturtea amaitu arte segitzea adostu genuen. Udara arte jarraituko dut entsegetara joaten, baina emanaldietan ez dut gehiago parte hartuko, eta irakasle lana ere laga egingo dut. Nekatuta nago eta atsedena behar dut. Hiru hilabetez egon naiz entsegetara joan gabe hankako lesio baten ondorioz, eta gainera, pneumonia ere pasatu dut. Hilabete-pasa egon naiz sukarra kendu ezinda, eta etxeokoe esaten zidaten atsedena behar nuela, baina ezin nuen laga, txapelketa bete-betean harrapatu ninduelako eta ezin

nituelako ikasleak laga. Presio askorekin ibili naiz, eta lagatzeko momentua iritsi da.

### **Zein balorazio egingo zenuke zure dantza ibilbideaz?**

Oso ona. Oso-osoa gustura ibili naiz, bai dantzari eta baita irakasle ere. Elgoibarko Izarraren baitan hasi nintzen irakasle, eta hasierako garai hartan ez genuen kobratu ere egiten. Gerora gauzak aldatu ziren, eta hasi ginen kobratzen, baina kontraturik gabe. Geroztik gauzak hobetu dira, eta gaur egun Musika Eskolan kontratuarekin eta lan baldintza duinetan gaude. Ordu pila bat eskaini dizkiot dantzari, nire bizitza izan da, baina gustura egin dut. Atzera begira jarri naiz, eta 42 urte bete nituen iazko irailean Haritz dantza taldean. 1981ean hasi nintzen dantzan, 21 urte nituela. Ikastaro bat egin nuen, eta dantza taldean sartu nintzen. Kasu arraroa izan da nirea. 21 urterekin dantzan hasi eta 22rekin dantza irakasten hasi nintzelako. Orduan Elgoibarko Izarraren baitan ematen zen dantza, eta gogoratzen naiz 22:00etatik aurrera telefono tarifa merkeagoa zenez, gauetz joaten nintzela bulegora telefono deiak egitera. Euskal Jaia izaten zen garai hartan ekitaldirik nagusiena, eta hura antolatzen ere aritzen nintzen. Sanbartolomeetako soka-dantza ere behin bakarrik galdu dut nire ibilbidean. 25 urtez jarraian soka-dantzako aureskularia izan nintzen, baina guztira, 38 ediziotan hartu dut parte. Nazioarteko Folklore jaialdian ere 36 aldiz egin dut dantza, 39 bat urtez izan naiz dantza irakasle eta azken 25 urteetan dantzari gazteak txapelketetarako prestatzen ibili naiz. Ez zait gustatzen harrokeriatan ibiltzea, baina iruditzen zait ez direla marka makalak.

### **Zein izan da zure dantza emanaldi gustukoena?**

Emanaldi askotan hartu dut parte, eta asko izan dira bereziak; ez da erraza bat aukeratzea. Argia dantza taldearekin Estatu Batuetan izan nintzen dantzan, Euskal Herriko antzoki garrantzitsuenetan ibilitakoa naiz (Arriagan, Euskaldunan, Victoria Eugenia...), Anoetaren inaugurazio egunean ere egin nuen dantza, eta ni Realzalea izanik oso berezia izan zen ekitaldi hura niretzat. Uztai Txiki dantzatu nuela gogoratzen naiz. Kurasaalaren inaugurazioan ere hartu nuen parte... Nazioarteko Folklore oso dotorea da, Errosario kaleko Ezpata Dantza ere bai, baina hala ere, niretzako emanaldirik

*"Nazioarteko Folklore Jaialdia oso dotorea da, Errosario kaleko ezpata-dantza ere bai, baina niretzat emanaldirik bereziena beti izan da sanbartolomeetako soka dantza"*

bereziena beti izan da sanbartolomeetako soka-dantza.

### **42 urtean dantzari izateko sekretua zein izan da?**

Beti izan naiz oso langilea. Jendea harritu egiten da nire malgutasunarekin, baina hori ez da berezkoa. %100a ematen dut beti, gero agian %90 lortzeko, baina nik dena eman izan dut. Asko ibiltzen naiz, luzaketak egiten ditut... Artrosia daukat bi belaunetan, eta atzetik begiratuta ibileran igartzen zait herrena. Horrez gain, biriketako beste gaixotasun bat ere badaukat. 17 urte nituela aroztegi batean hasi nintzen lanean, eta 44 urte egiteko nengoela utzi egin behar izan



nuen lana. Bost urtez egon nintzen eztula kendu ezinda, eta gaixotasun asko harrapatzen nituen. Medikuek gomendatu zidaten aroztegia lagatzeko, eta lanerako ezintasuna aitortu zidaten. Hori dela eta, nire denbora guztia eskaini diot dantzari; batzuetan, gehiegi.

**Txapelketetan parte hartzeko bidea ere zuk zabaldu zenuen, eta konturatzerako, 25 urte pasatu dira. Nola hasi zinen?**

Zerotik hasi nintzen. Garai batean Abel Iriondo, Mikel Legorburu eta beste batzuk ibili ziren txapelketetan, baina umeen mailan ez zegoen horrelakorik. Lourdes Odriozolak uste dut komentatu zidala behin, ondo egongo litzatekeela Elgoibarko dantzariak ere parte hartzea, baina nik ez neukan horri buruzko ideiarik ere ez. Federaziora deitu nuen informazio eske, lortu nituen dantzei buruzko argibideak eta hasi nintzen gaztetoak prestatzen. Ez neukan ideiarik ere, baina ikasi nuen, eta konturatzerako, 25 urte pasatu dira. Kritikak ere jaso nituen bere garaian, txapelketen eredia ez zelako egokiena, baina aukerakoa zenez, jarraitu egin genuen, eta nire ustez, esperientzia oso polita izan da. Beste herrietako ikasle eta irakasleekin harreman oso ona egin dugu, eta lehia baino gehiago elkarri laguntzen aritu gara. Lan handia egiten dute ikasle horiek txapelketetarako prestatzeko, eta sekulako teknika hartzen dute, baina hala ere, beti ez dira gauzak nahi bezain ondo irteten. Urduri egoten dira eta ez da erraza izaten epaimahai baten aurrean dantza egitea. Horregatik hasi ginen txapelketetan parte hartzen dutenen erakustaldia egiten Kalegoen plazan, haien lana herriari erakusteko. Aurtengo jaialdian hunkitu egin nintzen; ez nuen espero nire ikasle izandakoek eman zidaten sorpresa. Oso polita izan zen. Aurrerantzean badirudi ez duela inork hartuko txapelketen ardura, eta hori horrela bada, Elgoibarrek txapelketetan parte hartzeari lagako dio.

**Askotan eskertzak eta aitortzak beranduegi iristen dira, baina zure kasuan, garaiz iritsi dira. Zer sentitzen duzu?**

Oso eskertuta nago herri honek eman didan guztiarekin. Iaz egin zidaten omenaldi bat plazan, eta aurten ere sekulako sorpresa polita egin didate. Baina omenaldirik handiena erraldoia egitea izan da. Pena bakarra daukat: nire gurasoek ikusi ez izana. Gurasoek beti babestu naute, nire



*Jon Lizarralde, Unai eta Igor anaiekin.*

ondoan izan ditut beti, eta seguru nago poztuko liratekeela erraldoia ikusita. Gure etxean hiru anaiak izan gara dantzariak, eta gurasoek asko animatu izan gaituzte. Arreba ez da dantzan ibili, baina inguruan izan dugu beti bera ere. Kritikak ere jaso ditut, eta haserreak ere izan ditut, baina ni gauza onekin geratzen naiz. Erraldoiarena handia izan da. Esan zidatenean erraldoia nire itxurarekin egingo zutela poztu egin nintzen, eta ikusi nuenean, are gehiago. Poztu egiten naiz kalean ikusten dudak bakoitzean. Orain miniaturak eskoletan banatu dituzte, eta umeek ere ezagutzen dituzte Arantxi eta Jon, eta oso polita da. Niretzako errekonozimendurik handiena izan da. Aurtengo Trinitateetako danborradan ere *calesan* joateko aukera eman ziguten Arantxi eta bioi, eta polita izan da.

**Zer eman eta kendu dizu dantzak?**

Asko eman dit dantzak, dena. Baina nik ere neukan guztia eman diot dantzari. Aita gaixorik egon zenean ere akordatzten naiz gaua ospitalean pasatu eta lorik egin gabe joan nintzela gazteekin Villabonako txapelketara. Ospitalizazio asko izan zituen azken urteetan, eta horrela ibili nintzen.

Lotura handia izan dut dantzarekin, konpromiso handia neukan txapelketekin eta egoera horrek nekatu egiten du. Baina ez naiz damutzen egindakoaz; gustura egin dut eta pozik noa egindakoarekin. Dantza balioan jarri nahiko nuke. Futbolaren balioa ez du inork zalantzan jartzen, denek nahi dute futbolari izan, baina gero ekitaldi guztietarako dantzariak eskatzen dituzte. Euskal kulturaren oso garrantzitsua izan da euskal dantza.

Eta kendu, kentzekotan, denbora kendu dit, baina askoz gehiago izan da eman didana, kendu didana baino. Anaia Budapestera iritsi zen eskubaloiarekin, eta ni dantzarekin iritsi nintzen hara. Bidaiatzeko aukera eman dit, lagunak eman dizkit... Kuadrillako denei egin diet dantza ezkondu direnean, biri izan ezik, lesionatuta nengoelako, baina pena bat daukat: kuadrillako batzuek ez naute sekula dantzan ikusi, eta horrek pena ematen dit. Beste batzuk sarri etorri izan dira ni ikustera eta horrek poza ematen dit.

#### **Aurrerantzean, nolakoa izango da zure egunerokoa?**

Lasaia, espero dut. Ibiltzea asko gustatzen zait, eta egunero paseatzen dut. Erosketak egin, bileraren bat... bitzta lasaia. Eguzkia ere oso gustuko dut, eta orain uda datorrela, txapela jantzi eta ibiltzera! Belaunak guztiz sano eduki ez arren, ez naiz geldirik egotekoa. Pandemia aurretik ez nintzen hainbeste ibiltzen, baina etxean hainbeste

*"Dantza balioan jarri nahiko nuke.  
Futbolaren balioa ez du inork zalantzan  
jartzen, baina gero ekitaldi guztietarako  
dantzariak eskatzen dituzte.  
Euskal kulturaren oso garrantzitsua  
izan da euskal dantza"*

denbora pasa ostean gustua hartu nion ibiltzeari. Ondo egiten dit fisikoki aktibo egoteak. Atsedentalak behar dut batez ere, burua daukat oso nekaturatuta. Dena dela, Haritz dantza taldeari behar duen edozertan laguntzeko prest egongo naiz. Nik ere jende askoren laguntza izan dut inguruan, eta ni ere hor egongo naiz behar nautenerako. Musika Eskolak pila bat lagundu dit, bai lehengo zuzendaritzak eta baita oraingoak ere. Arantxi eta bere senarra Rafa, Haritz dantza taldeko guztiak... Imanol Arantzamendi ere irakasle dabil orain, eta datorren urtean talde gehiago hartuko ditu. Dantza eskola esku onetan dago, jende fina dago hor barruan, oso inplikatuak dira guztiak. Dantza ikasleei dagokionean esan behar dut batzuk ez dutela serio hartzen, ez dago lehen zegoen konpromisorik eta erraz lagatzen dituzte klaseak, konturatu gabe zer eragiten duen horrek.



# GIPUZKOA

**Ekin.**

*Gipuzkoa  
oparoagoa  
izateko.*

**Zaindu.**

*Pertsona guztiak eta  
horien ingurukoak  
zaintzen dituen.*

**Bizi.**

*Ondo eta  
duin bizi  
daitezen.*



**GIPUZKOA**

Foru Aldundia



*Ioritz Leiaristi, Ion Fernandez eta Iker Odria*

## TXAPELDUNAK JARRIKO DITUZTE AURREZ AURRE LA ROITA ERRONKAN, HILAREN 22AN

  Ainara Argoitia /  Asier Orbea

**Ekainaren 22an jokatu dute Elgoibarren La Roita erronkaren laugarren edizioa. Aurrekoetan moduan, Mutrikuko portua, Kalegoen plaza eta Karakate lotuko ditu erronkak eta lehenengo hiru ekinaldietan txapeldun izan direnak lehiatuko dira: Iker Odria, Ioritz Leiaristi eta Ion Fernandez. Egun berean, Mendaron jubenilen Gipuzkoako Txirrindularitza Itzuliko lehenengo etapa jokatu dutenez, proba orduerdiz aurreratzea erabaki dute antolatzaileek, eta beraz, 09:00etan hasiko dute desafioa hiru lehiakideek, Mutrikuko portuan. Dena ez da kirola izango, baina, erronkaren aitzakian, egun osoko jai-egitaraua antolatu dutelako La Roitakoek.**

**A**sperdurak sormena sustatzen duen modu berean sortzen du parrandak desafiotarako giroa Euskal Herrian, eta bietatik izan zuen sorreran La Roita erronkak. Covid-aren pandemia betean, etxera lotu gintuzten garaian, hasi zitzaizkien kuadrillakideak Antxon De la Arada eta Iker Odriari belarriak berotzen, eta akuilatu zituen Unai Astiazaran lagunak gero. Igerian, bizikletan eta korrika hiru joko egitekoak zituzten hasieran: pizinan saio bat, saltaka Karakatera igo eta Mendaro eta Idotorbe bizikletaz lotu hirugarren joko batean, baina laster eman zioten triatloi forma kuadrillan, desafioa egun bakarrera ekarrita. Mutrikuko portua, Elgoibarko plaza eta Karakate lotu zituzten joko berean, jarri zen kuadrilla oso bat lanera, lotu zuten eguna, sortu zituzten Instagram kontua eta porra, josi zituzten bazterrak kartelez,

izendatu zituzten emankizunerako aurkezleak (Unai Astiazaran bera, Gartxot Fidalgo eta Gorka Iriondo) eta demaseko jai-giroa sortu zuten herrian, Iker Odria eta Antxon De la Aradaren arteko norgehiagoka haren bueltan. 2021eko ekainaren 26a zen. Sekulako ikusmina sortu zen herrian, bereziki gazte jendearen artean, baina hartu zioten tamaina kirolariek presio hari. Iker Odriak irabazi zuen apustua, 24 minutu eta 50 segundoko denbora eginda [Hiru minutu eta erdi gehiago behar izan zituen De La Aradak], eta ospatu zuten lagunek Idotorben egindako bazkaritan hasita.

Gau hortan bertan bota zion desafioa Ioritz Leiaristik Iker Odriari hurrengo urterako. "Erronka izan zen asteburu berean jakin nuen Odriak erronka jokatzekoa zuela eta sekulako inbidia

sentitu nuen. Eta apustuko gau hartan bertan jo nion desafioa hurrengo urterako", oroitu du Leiaristik. 2022ko apirila aldera arte, Odriaren kuadrillakideak bila joan zitzaizkion arte, ez zion inork gaia aipatu. "Arre edo iso egin behar zela esanez etorri zitzaizkidan eta ia animatuko nintzatekeen bigarren ediziorako. Baietza eman nien". Topatu zizkieten aurkariak, Antxon De la Arada eta Ivan Rogel, eta urte hartako uztailaren 2an jokatu zuten desafioa, estreinako aldiko joko bera: Mutrikuko portuan 600 metro igeri egin, bizikletaz Kalegoen plazaraino etorri eta Karakatera saltaka igo. Leiaristik berak irabazi zuen, eta 1:23:56an ezarri zuen errekorra. Ivan Rogelek egin zuen bigarren eta Antxon De la Aradak hirugarren. "Azken momentuan antolatuta izateko oso ondo irten zen bigarren edizioa ere", nabarmendu du Odriak.

Zimenduak ezarrita zeuden hirugarren baterako. Iazko uztailaren 1ean jokatu zuten La Roita erronkaren hirugarren edizioa Ion Fernandez mendarorak, eta Ander Aranbarri eta Asier Basurto elgoibartarrek. "Uztailean jokatu zuten bigarren edizioa, eta urrian onartu nuen nik hirugarren edizioan parte hartzea. Akordatzen naiz goizaldera, Lanbroan, Astiazaranez xaxatu eta paper batean sinarazi zidala", dio Fernandezek. Iritsi zen eguna, eta berriro ere, irudi dotoreak laga zizkigun La Roita erronkak, bai eta ondorenak ere, bistan da.

Fernandezek jantzi zuen orduko hartan txapela Karakaten, 1:25:59ko denbora eginda, Aranbarri egin zuen bigarren eta Basurto sailkatu zen hirugarren, baina berdindu ziren denak desafio osteko parrandan, aurrekoetan moduan. 200 lagun baino gehiago elkartu ziren bazkaritan eta luzatu zuten eguna karropoteo, kontzertu eta Mauxitxa txarangaren kalejirekin. Aho-zapore gozoa utzi zuen hirugarrenak ere herrian, eta egitarauan beste jai-egun bat gehiago da geroztik Elgoibarren La Roita erronkaren eguna. Aurten, ekainaren 22a markatu dute gorritz.

## ZIKLO BATEN ITXIERA

Hala planteatu dute aurtengo erronka La Roitakoek: ziklo baten itxiera modura. Horretarako, hiru edizioetako txapeldunak jarriko dituzte aurrez aurre: Iker Odria, Ioritz Leiaristi eta

## *Ekainaren 22ko bazkarirako izena eman nahi dutenek kuadrillaka egin behar dute, hilaren 13a baino lehen La Roitak Instagramen duen kontura idatzita*

Ion Fernandez. Sendo egin dute lan La Roitakoek, laugarrena ere ahaztezina izan dadin. Iazko udazkenean hasi ziren antolakuntza lanetan, eta bi-hiru astean behin ari dira elkartzen hamabost bat lagun, erronkaren inguruko gorabeherak lotzeko. "Oso motibatuta gaude denok. Bakoitzak bere rola dauka lantaldean, banatuta ditugulako ardurak. Oinarri sendo bat badugu eta orain dena da errazagoa, baina hemen edozer antolatzea da lana, eta tamaina honetako jai bat egiteko pentsa zenbat gauza hartu behar diren kontuan. Lana da, eta dirua ere bai. Autogestioa da gurea, eta autofinantziazio bidez lotzen dugu ekintza guztiak ordaintzeko dirua. Gauza hutsa eman dezake hau antolatzeak, baina ez da", esan du Odriak. Ez ditu, baina, lanak atzera botatzen. Lortu dutenak ez dauka parekorik eta "obligazioa" ere sentitzen dute honi eusteko. "Aurtengoarekin ziklo bat itxiko dugu, eta datorren urterako beste zerbait ari gara pentsatzen, ezberdina. Taldeka jokatu, talde mistoak egin... aukera ezberdinak aztertzen ari gara, eta Instagramez ere zabaldu dugu proposamenak egiteko aukera". Hori datorren urterako, baina.

Aurtengorako, egun osoko egitaraua antolatu dute: erromeria, poteoa, porra, Mauxitxa txarangaren kalejira, karropoteoa eta 21:00etatik aurrera Kostako Vives, Jeizy's Tyros, Olgetan eta Alternative Division taldeen kontzertuak, Gaztetxean. 500 bat lagunentzako paella jana ere egingo dute Sigmako aparkalekuan (300 lagun baino gehiago daude dagoeneko izena emanda). Paellaz gainera, amamaren haragi bolekin eta etxeko pantxinetarekin osatuko dute menua, eta zapiak ere banatuko dtiuzte. Kuadrillaka eman behar da izena. Kuadrila bakoitzeko ordezkari batek zerrenda osatu eta ekainaren 13a baino lehen bidali beharko die antolatzaileei, Instagramen duten kontuaren bidez. Eta ohi duten moduan, zuzenean emango dute erronka, esatari eta komentariisten laguntzarekin.



**AURREZ AURRE**

1. Zein dago urduriago erronka jokatu aurreko egunotan?
2. Zein uste duzu dela proba irabazteko faboritoa?
3. Nork egingo du lo okerren bezperan?
4. Nor iritsiko litzateke berandu jarritako ordura?
5. Zein prestatu da ondoen erronkarako?
6. Zein da superstiziosoena?
7. Zeinek dauka erronkarako materialen bat etxean ahazteko arrisku handiena?
8. Zeinek bildu du jarraitzaile gehien sare sozialetan proba honen harira?
9. Zeinek egingo du denbora onena plazatik Karakatera?
10. Zein dago ondoen prestatuta Nahaste Borraste probarako?
11. Zein ikusten duzu hurrengo beste erronkaren baten nahastuta?
12. Zeini luzatuko zaio gehien erronka eguneko gaua?
13. Zein ikusten duzu gai gau horretan kalera mozorrotuta irteteko?
14. Zein agertuko da gehiagotan BARRENEK etorkizunean?
15. Zeinek ondu dezake 1:23:56 minutuko errekorra?

**IORITZ LEIARISTI**

1. Iker
2. Ni
3. Nik
4. Ni
5. Iker
6. Iker
7. Nik
8. Ionek
9. Ikerrek
10. Irabazten duena
11. Ni
12. Ioni
13. Ion
14. Iker
15. Denok

**IKER ODRIA**

1. Ion
2. Ioritz
3. Nik
4. Ioritz
5. Ni
6. Ni
7. Ioritzek
8. Ionek
9. Ioritzek
10. Ioritz
11. Ioritz
12. Niri
13. Ioritz
14. Ioritz
15. Ioritzek

**ION FERNANDEZ**

1. Iker
2. Iker
3. Ikerrek
4. Ni
5. Iker
6. Ni
7. Nik
8. Ioritzek
9. Ikerrek
10. Iker
11. Iker
12. Niri
13. Ioritz
14. Iker
15. Ikerrek

# EH Bilduk irabazi ditu Europako Parlamenturako hauteskundeak Elgoibarren eta Mendaron



**A**lderdi Sozialistak lortu ditu boto gehien Hego Euskal Herrian Europako Parlamentuko hauteskundeetan, 300.372, eta Orain Errepublikak hautagaitzaren parte izan den EH Bildu izan da bigarren indarra, 276.842 botorekin eta estreinakoz Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian EAJri aurrea hartuta. Debabarrenara etorrita, Ermuan eta Eibarren izan ezik, herri guztietan nagusitu da EH Bildu, botoen %30,47rekin, eta PSE-EE izan da bigarren alderdi bozkatuena (%29,17). Biek egin dute gora boto-portzentajearen, bosna puntutan. CEUS-Europa Solidarioaren aldeko koalizioarekin aurkeztu da EAJ Europako hauteskundeetara eta boto gehien eskuratu dituen hirugarren alderdia izan da eskualdean, %21,67rekin, baina 2019ko hauteskundeetatik kolpe handia jaso dute, ia hamar puntuan egin dutelako behera.

Debabarrenak hartu duen kolore bera hartu dute Elgoibarrek eta Mendarok. Bietan irabazi du EHBilduk. Besteak beste, eskuin muturrari galga jartzeko, Europako parlamenturakoak hauteskunde garrantzitsuak direla esanez aritu zaizkie alderdi politikoetatik

herritarrei, sumatzen zutelako halako neke eta etsipen bat haiengan, besteak beste urtebetean laugarren hauteskundeak ere izan ditugulako hauek Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, baina hala ere, ez dute lortu normalean baino herritar gehiago mobilizatzerik. Are, abstentzioak gora egin du gure bi herrietan, 15-17 puntuan. Elgoibarren, %48,19koa izan da abstentzioa, eta Mendaron, berriz, %48,91koa.

Elgoibarren, 8.581 herritar zeuden domekan botoa ematera deituta eta 4.446 herritarrek

## Elgoibar

EMAITZAK	2019	2024
EHBildu	1.694	<b>1.500</b>
EAJ-PNV	2.348	<b>1.284</b>
PSOE	843	<b>1.082</b>
PP	169	<b>257</b>
Podemos	460	<b>63</b>
Sumar	---	<b>61</b>
VOX	15	<b>59</b>
SALF	---	<b>31</b>
Pacma	39	<b>12</b>
Ciudadanos	98	<b>5</b>
Junts	18	<b>4</b>

Hautesle-errola	8.676	<b>8.581</b>
Emandako botoak	5.824	<b>4.446</b>
Abstentzioa	2.883	<b>4.135</b>
Zuriak	35	<b>20</b>
Baliogabeak	59	<b>18</b>

## Mendaro

EMAITZAK	2019	2024
EHBildu	289	<b>263</b>
EAJ-PNV	418	<b>204</b>
PSOE	125	<b>139</b>
Sumar	---	<b>37</b>
PP	22	<b>33</b>
Podemos	90	<b>16</b>
VOX	1	<b>12</b>
SALF	---	<b>9</b>
Pacma	8	<b>2</b>
Ciudadanos	9	<b>1</b>
Junts	0	<b>0</b>

Hautesle-errola	1.415	<b>1.435</b>
Emandako botoak	992	<b>733</b>
Abstentzioa	443	<b>702</b>
Zuriak	2	<b>0</b>
Baliogabeak	8	<b>2</b>

eman zuten (baliogabeak, 18). Bilduk eskuratu zituen botoen %33,88, guztira: 1.500 boto (+4,49ko puntu). 2011ko Espainiako hauteskunde orokorretan Amaiur koalizioan aurkeztu zenetik lehenengoz hartu dio aurre Elgoibarren EH Bilduk EAJri hauteskunde batzuetan. EAJ bera izan zen domekan bigarren alderdi bozkatuena, botoen %29rekin: guztira, 1.284 boto (-11,73 puntu). Debarreneko joera bera errepikatu zen, baina, Elgoibarren ere: 2019ko hauteskundeekin alderatuz, EH Bilduk, gora egin du eta EAJk behera. PSE-EE izan da herritarren babes handiena lortu duen hirugarren alderdia, 1.082 botorekin (%24,44). Duela lau urteko hauteskundeetako emaitzekin alderatuz gero, sozialistek ia bederatzir puntu egin dute gora boto portzentajeaz.

Mendarok 1.435eko hautesle-errolda zuen domekako hauteskundeetarako eta 733 herritarrek eman zuten botoa. Elgoibarren gertatu bezala, Mendaron ere Bildu gailendu zen, 263 botorekin (botoen, %35,98), EAJk egin zuen bigarren, 204rekin (%27,91), eta sozialistak hirugarren (139 boto; %19,2). Duela lau urteko hauteskundeak erreferentziatzat hartuta, EH Bilduk eta sozialistek sei puntu egin dute gora, eta EAJk, berriz, hamabost behera. Elkarrekin Podemos izan da bi herriotan kolpe handia jaso duen beste alderdia. Europako parlamenturako hauteskundeetan eskuin muturraren gorakada zenbatekoa izango zen zegoen jokoan hauteskunde hauetan, hein handi batean, eta horren harira esan behar da bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere, bietan egin dutela gora bai PPK eta bai VOXek, eta 40 boto bildu dituela guztira Avise Perezek lideratutako SALF Se Acabó la Fiesta alderdiak.

**Europako Parlamentua**

Eta hain justu ere horixe gertatu da Europako emaitza orokorretan ere: eskuineko eta eskuin muturreko alderdiek gogor astindu dute Europa, baina kontserbadoreek, sozialistek eta liberalek osatzen duten eta Ursula Von Der Leyen


presidente duen koalizioak eutsi egin zion gehiengo osoari, botoen %63 jasota. Bera da, beraz, presidente postuan segitzeko hautagai nagusia, bere alderdiak EAP Europako Alderdi Popularrak irabazi zituelako hauteskundeak. Behin-behineko emaitzen arabera, 2019an baino hamabost eserleku gehiago eskuratu zituen gainera: jokoan zeuden 720 aukietatik 186. S&D Sozialisten eta Demokratien Aliantza Progresista izan zen bigarren, 135 eserlekurekin (2019an baino lau gutxiago) eta RE Renew Europe liberak hirugarren, 79 eserlekurekin. Ganberaren osieran gertatzen dela gertatuta ere, sei euskal herritar arituko dira Estrasburgon datozen bost urteetan: Idoia Mendia eta Elena Santxo PSOEtik, Pernando Barrena EH Bildutik, Oihane Agirregoitia EAJtik, eta Javier Zarzalejos eta Antonio Lopez-Isturiz PPTik.

**DEBABARRENA MAPA**



**Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak 2024 vs 2019 - Debabarrena**

Boto kopurua - Eskrutiniaz: %100,00



# PLAZA KANTUAN

Asier Orbea / Jose Ramon Cabrera

Nino Bravoren abesti ezagunenak interpretatu zituen barikuan Serafin Zubirik Elgoibarko Udal Musika Bandarekin, eta denen artean Kalegoen plaza kantuan jarri zuten. Euriak ere ezin izan zuen plaza ixildu, eta kontzertu amaierara arte iraun zuen publikoak, aterkipean. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)



# 'Elgoibartik mundura' egitasmorako sortu dituzten webguneak aurkeztu dituzte ikasleek

**H**erriko ikastetxeetako ikasleek *Elgoibartik Mundura* ekimenaren baitan herriko elkarteentzat sortu dituzten webguneak aurkeztu zituzten eguaztenean, Aita Agirre Kulturgunean. Lorea Argarate zientzialari eta dibulgatzaileak gidatu zuen saioa, eta DJ saioa ere eman zuen. Ingurune digitalean euskararen digitalizazioa eta erabilera sustatzeko, Elgoibarko Izarrarekin eta PUNTUEUS Fundazioarekin elkarlanean, abiatu zuen proiektua Elgoibartik Mundura Fundazioak 2024aren hasieran.

Elgoibarko elkarten digitalizazioa sustatzea eta .eus domeinuaren erabilera sustatzea izan dituzte helburu, eta hauek dira lehen urte honetan parte hartu duten elkarteak eta egileak: Haizea emakume taldea (Elgoibar Ikastola), C.D. Elgoibar (Elgoibar Ikastola), Inazio Bereziartua Musika Eskola (Elgoibar Ikastola), Egur Arte Tailerra (IES Elgoibar BHI), Zubi Ondo Xake Elkarte (IES Elgoibar BHI), Atxutxiamika Aisialdi Elkarte (IES Elgoibar BHI),



Mauxitxa Txaranga (IES Elgoibar BHI), Jubilatuen Biltokia (Meka Lanbide Eskola) eta Kalamua Guraso Elkarte (Herri Eskola).

Ikasleek garatu dituzten webguneak bizirik mantentzea Udalaren ardura da, eta horretarako, formakuntza saioak eskainiko dizkiete elkartei.



## Mikroantzerki saioa antolatu du Kultur Kafekak biharko

Mikroantzerki emanaldia antolatu du Elgoibarko Kultur Kafekak biharko, hilaren 15erako, eta bi antzezlan ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek: *And the Oscar goes to...* eta *La carta*. Alazne Etxeberriak (Donostia, 1979) zuzendutako obrak izango dira biak.


20:30ean hasiko da antzerki emanaldia, eta sarrerak bost euro balio ditu. Sarrerak aurrez erreserbatzeko aukera ere badago, 943 021 273 telefono zenbakira deituta.

## Hiru emanaldirekin amaituko du ikasturtea Birakak

Biraka dantza taldeak datorren astean emango dio amaiera ikasturtari. Hiru emanaldi egingo dituzte Herriko Antzokian, eta saio bakoitzean 140 bat dantzarik hartuko dute parte. Eguaztenetik barikura izango dira saioak, 20:00etan.

## Ane San Martinen ikasleen lanak Kultur Kafean

Iaz hartu zuen Ane San Martinek Gemma Monrealen estudioa, eta dagoeneko bete du lehen ikasturtea. Orain, ikasleen lanak jarri ditu ikusgai Kultur Kafean. 5 urtetik gorako ikasleek eginiko 70 bat koadroekin osatu du erakusketa, eta hilaren 16ra arte egongo da ikusgai.



### Ekigain jaia gaur zortzi, Sallobenten

Udari ongietorria egingo diete gaur zortzi Sallobenten, Ekigain jaiarekin. Maalan batuko dira 19:00etan eta oinez egingo dute Sallobenterako bidea. Merienda afaria egingo dute han, eta 21:00etan izango da ekitaldi nagusia. Herriko musikariak kantuan jardungo dira, eta Ekigain kanta ere abestuko dute. Ondoren, suaren gaintik salto egiteko aukera egongo da, eta 23:00etan hartuko dute etxerako bidea.



### Niala magoarekin amaituko dute 'Tertuliak' egitasmoaren ikasturtea



*Tertuliak* egitasmoak ekainaren 20an emango dio amaiera ikasturteari, Alain Zulaika Niala magoaren ikuskizunarekin. Kultur Etxeko sotoan izango da, 19:00etan, doan, eta *Tertuliak* egitasmokoentzat ez ezik herritarrentzako ere irekia izango da emanaldia. Elgoibarko Izarrak, Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal euskaltegiak antolatzen dute *Tertuliak* egitasmoa.

### Debabarreneko orkestra sinfonikoaren kontzertua, domekan



Debabarreneko orkestra sinfonikoak kontzertua emango du domekan, Herriko Antzokian, 12:30ean. Iñigo Cearsolo elgoibartarrak zuzenduko du emanaldia, eta ondorengo piezak joko dituzte: *En las estepas del Asia Central* (Alexander Borodín), *The Ludlows* (James Jorner), *Concerto D'Amore* (Hacob de Haan), *Michael Jackson Hit Mix* (Mold. Johnnie Vinson), *Danzon nº2* (Arturo Marquez).

## 'Txirristaka goguan, gaurkuak kantuan' saioa gaur, Mendaron

Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurrenaren harira antolatutako kultur programaren barruan, *Txirristaka goguan, gaurkuak kantuan* saioa egingo dute gaur Mendaron. Bi bertsolari arituko dira bertsoan: Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi. Kalez kaleko ikuskizuna izango da. Azpilgoeta auzoan hasiko dute bertsolariak beren ibilia, 19:30ean, eta Mendarozabal auzoan bukatuko dute. Bidean, hiru-lau geldialdi egingo dituzte, eta geldialdi bakoitzean saio bana egingo dute. Bertsolarietako batek *Txirristakak* idatzitako bertsoak kantatuko ditu, eta besteak gaur egundik erantzungo dio. Bi bertsolariak txandaka arituko dira egiteko horretan. Aurrez, 19:00etan, *Txirristaka Saria* bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dituzte udaletxean.

## Kaxa taldeko 42 dantzari gaztek goraino bete dute frontoia Mendaron ikasturte amaierako emanaldian



Ikasturte amaierako dantza emanaldia egin zuten bariku iluntzean Mendaroko Kaxa dantza taldeko ikasleek eta sekulako ikusmina sortu zuten emanaldiak. 42 dantzari aritu ziren dantzan, adinaren arabera taldetan banatuta, eta talde bakoitzak bi-hiruna dantza dantzatu zituen. Bideoa eta argazkiak ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus).

## Mikel Romerok irabazi du Mendaron mahai-jokoen jardunaldien baitan jokatu duten Catan Txapelketa

Mahai-jokoen jardunaldia antolatu zuen Odisea Taldeak Mendaron domekan, Udalaren laguntzarekin, eta egun osoan zehar mahai-joko ezberdinetara jolasteko aukera izan zuten herritarrek. Jardunaldi horren baitan, Catan mahai-jokora ere lehiatu ziren zenbait lagun, eta Mikel Romero mendaroarrak irabazi zuen txapelketa. Haren aita Gorka Romero sailkatu zen bigarren eta Angel Romero gazte mendaroarra hirugarren. Egunaren bukaeran hainbat mahai-joko ere zozkatu zituzten Odisea taldekoek jolasera batu ziren guztien artean.



## Metrorrelatos lehiaketa irabazi du Iñaki Goitia Mendaroko liburuzainak



Madrilgo Metroak antolatutako Metrorrelatos lehiaketa irabazi du Mendaroko liburuzain Iñaki Goitiak, *Tragedia moderna* lanarekin. 6.500 lagunek parte hartu dute guztira lehiaketan. Gehienez 100 hitzetako mikrokontakizuna idatzi behar zuten lehiaketarako, gaztelaniaz, eta testua esaldi honekin hasi: "Estaba justo enfrente". Hirugarren baldintza bat ere bete behar zuen, baina: metroan girotua egon behar zuen istorioak. Goitiak literatura klasikoko bi lan uztartu ditu *Tragedia moderna* lanean, *On Kixote Mantxakoa* eta *Hamlet*, eta etxebizitzaren problematikari keinua egin. Goitiaren lan saritua Madrilgo metroaren bagoietan jarri dute irakurgai. 1.500 euro eta ikastaro trinko baterako matrikula jaso ditu saritzat.

## Katez eta poesiaz

✍ Ane Astiazaran / 🎸 Asier Orbea

**A**nari ezagutzen ez duenak ez du euskal musika eta letragintzako erreferenteetako baten hutsunerik sentituko, hortxe biziko da ezjakintasunaren lasaitasunean; nahita edo baten batek bultzatuta, intentzio osoz edo kasualitatez, Anariren kantaren bat entzuten duen arte. Anarik jarraitzaile fidelak ditu, disko berria gogoz itxarongo dutenak eta kanta zaharrei beste irakurketa bat emango dietenak. Zaila da hortik irtetea, eta esango nuke abestiez gain, haren hitzek ere aise harrapatu gintuztela Sotoan batutako elgoibartarrak ere.

Ez da askotan izaten elkarrizketa musikatuez gozatzeko aukera. Horrela bizi dugu mundua: elkarrizketa edo musika. Halakoetan konturatzen gara zein ederrak diren muga lausoagoak. Anarik berak ere, bai banda eta bai kantautore, muga horretan kokatzen du bere burua, *bandautora* izenpean, bakarlari izateko bandak pisu handiegia eta banda izateko bakarlariaren printza presentetegi. Zertarako aukeratu?

Muga lauso horietan kokatuz pasa zuen Anarik Azkarate, Azkoitia eta Elgoibarren arteko muga lausotuz. Bandaren parte den Ander Mujikaz gain, baditu gure herrira itzultzeko arrazoiak. Izan ere, besteak beste, Unai Argarate elgoibartarrari zor dio musikari gisa bere ibilbidearen hasiera. Hasierek dakartzaten emozioak emozio, artisten ibilbideak ezinbestean du eboluziotik, eta Anarik bere hastapenetako sorkuntzan %90 imitazioa eta %10 berak sortua zela defendatzen du, eta hain zuzen horixe dela gakoa, urteak, kanta eta letrak pasa ahala, norberarena %90 eta imitazioa %10 izatera iristen bada behintzat. Balantza bere lekua hartzen hasi zenean sorturiko kanta izan zen gozatu genuen lehena, ariketa estetikitik inflexio puntu izatera pasa baitzen bere sorkuntza *Aingura Hegodunak* kantarekin batera.

Nork bere bizitzan nork bere modura kokatuko du Anariren musika, eta badakigu askoren bidelagun izan dela, zaurietan eta une ederretan. Garrantzi berezia ematen die Anarik letrei, Atxagaren *Etiopia* edo *Ziutateaz* erreferentzia hartuta, poesia esentzia eta indar



nuklear moduan ulertzeak eraman du bere poesia dagoen lekura, indar nuklear hori izan baitaiteke piromana bati buruzko notizia bat, luizi bat edo aulki huts bat.

Ibilbide oparo baten ostean disko berria kaleratzeak dakarren beldur bat izan da gaien edo letren errepikatzea, eta hain zuzen bide baten mozketak egiten saiatu da Anari atera duen azken diskoan. *Giza zarata* diskoko *Inmolazioa* kanta esaten du “munduari su emateko gogo sartzen zaizu, balkoira atera eta zigarro bat pizten duzu”, eta erretzen ez duen Anariri zigarro hori piztearekin batera piztu zitzaion espekto narratibo infinitu bat.

Azken diskoko letren eta gaien politizazioa erabat bilatu du Anarik. Gizarteak feminismoan izandako bilakaerak berari eta bere sorkuntzari emandakoa aipatzen du, *Amua* kanta mahai gainean jartzen duen amatasun-ez amatasunaren gaia kanta politiko moduan entzuten duen publikoa da Anarirena, eta Giza zaratarekin pertsonala ez den horren politizazioa ere nabarmendu nahi izan du. Politizazio horretatik tiraka oparitu zigan elkarrizketa musikatu bukatzeko *Vesna Vulovic* kanta, berak ere bera orain denari egindako oparia. *Orfidentalak* izan zen beretzat bizitzaren autoerreturua, eta bigarren hau sortzea izan da 50 urteren bueltako emakumei egindako bat, ironiatik eta autoironiatik, gizarteak ahazten dituen emakume horiei lekutxo bat eginez.

Elkarrizketa musikatu Anariren musikara hurbildu ez denarentzat horretarako bide ederra izan zen, baita artista azkoitiarraren musikaz gozaten duenak musika eta letrei beste dimentsio bat ematekoa ere.





## Pedro Arosa Ansola

2024ko ekainaren 7an hil zen, 69 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Pedro Arosa Ansola

2024ko ekainaren 7an hil zen, 69 urte zituela.

**Betirako izango zaitugu gogoan.**

Maala Artetxe kuadrilla



I. URTEURRENA


## Javi Arnedo Merino

2023ko ekainaren 10ean hil zen, 64 urte zituela.

**Udaberriko haizeak  
oroitzapenak dakarzki  
inork ze latza izan zen  
ta ze min dugun baleki.  
Zu gertu izan zaitunak  
ondo baino hobeto daki  
zure joana izan zela  
bizitzaren amiltoki.**

**Aita, zaindu gaituzu goxo  
eta maitatu emeki,  
babestu gaituzu beti  
indartsu, gogor, estuki.  
Asko maite zaitugula  
esan nahi dugu ozenki  
ta beti izango zarela  
etxekoan babestoki.**

Etxekoak



I. URTEURRENA

## Javi Arnedo Merino

2023ko ekainaren 10ean hil zen, 64 urte zituela.

**Urtea pasatu arren,  
zain gauzkazu beti.  
Gurekin zaude, baina  
elkar ezin uki.  
Izan zinena gure  
poztasun iturri,**

**gure malkoak dira  
igerian ari,  
ur haren babesean,  
zure bila, Jabi;  
nahi ta ezinean  
zure bila, Jabi.**



Erre Arte Kuadrilla



## Paula Calvok Europako Txapelketan lehiatzeko gutxieneko marka lortu du




Espainiako Grand Prix zirkuiturako proba puntuagarria da Gipuzkoako Igeriketa Federazioak antolatzen duen Gipuzkoa Open Saria, eta lurraldeko igerilari onenak batu zituen, ekainaren 1ean eta 2an, Donostiako Paco Yoldi kiroldegian. Eibar Igerixan taldeko lau kide ere lehiatu ziren txapelketa hartan, tartean Paula Calvo elgoibartarra. Lau probetan hartu zuen parte, eta guztietan sailkatu zen finalerako. Emaiztarik onenak, baina, 200 metroko probetan eskuratu zituen, bizkar estiloan zein librean. Batean zein bestean urrezko dominak irabazi

zituen Calvok. Gainera, 200 metroko bizkar estiloko proban Europako Txapelketetan parte hartzeko gutxieneko marka lortu zuen, 02:18:03ko denborari esker. Espainiako txapelketa izango da Paula Calvorentzako hurrengo erronka, Open Astralpool Mallorca txapelketa, hain zuzen ere. Ekainaren 18tik 22ra jokatuko dute Palmako Son Hugo igerilekuetan (Balear Uharteak). 50, 100 eta 200 metroko lasterketetan lehiatuko da han, bizkar estiloan. Espainiako selekzioarekin Parisko Olinpiar Jokoetan aritzeko aukera ematen duen azken txapelketa ofiziala izango da Palmakoa.

### Brontzezko domina Ane Agirregomezkortarentzat, 100 metroko proban

Gipuzkoako banakako eta klubon arteko Atletismo Txapelketa Absolutua jokatu zuten zapatuan emakumezkoen 100 metroko proban. Lurraldeko esprinterrik onenak batu ziren, eta hamahiru finalerditan lehiatu ziren parte hartu zuten 77 antxixikariak. Zortzi denborarik onenak egin zituztenak sailkatu ziren finalerako eta horietako bat izan zen Mintxeta Atletismo Taldeko Ane Agirregomezkorta Garcia. Finalean, Txindoki Atletismo Taldeko bi kide izan ziren azkarrenak. Ainhoa Renpan Agirrek eskuratu zuen lehen postua (12.16), Maren Higuero Larreategik (12.30) bigarrenkoa eta Ane Agirregomezkorta sailkatu zen hirugarren postuan (12.45). Duna Santos Otegi (Mintxeta A.T.) ere lehiatu zen 100 metrokoan, baina ez zen finalerako sailkatu, bere seriean bigarren postua eskuratu zuen arren.



## Hodei Ezpeleta hirugarren eta Uxue Ansorregi bigarren Urrezko Aizkolarien finaletan

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako finala eta emakumeen Binakako Aizkolari Txapelketa jokatu zituzten domekan Urrestillako Txikuri pilotalekuan. Hiru aizkolari lehiatu ziren Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako finalean: Hodei Ezpeleta, Mikel Larrañaga eta Iker Vicente. Azken bi urteetako txapeldunari, Julen Alberdi *Txikia IV.a* azkoitiarrari erreleboa hartu nahi zioten hirurek, baina Iker Vicente otsagabiarrak lortu zuen hori.

Aizkolari nafarra izan zen azkarrena lehiatu ziren proba guztietan: erlojuaren kontra ebagi beharreko enborretan, etzanetan zein zutikakoan, eta baita bukaerako lan luzean ere. Lan guztiak osatzeko 19:06ko denbora behar izan zuen. Emozioarentzako tarterik laga gabe gailendu zen: 02:39 atera zion bigarren sailkatu zen Mikel Larrañaga azpeitiarrari (21:45), eta Larrañagak baino minutu pasa gehiago behar izan zituen hirugarren finalistak, Hodei Ezpeleta



mendaroarrak (22.49). Emakumeen Binakako Aizkolari Txapelketan estuagoak izan ziren aldeak: 11 segundoren barruan bukatu zituzten lanak finalean lehiatu ziren hiru bikoteek. Txapela Malen Barrenetxeak eta Karmele Gisasola *Zelai III.ak* jantzi zuten (6.19), Uxue Ansorregi mendaroarra eta Nerea Sorondo beratarra sailkatu ziren bigarren postuan (6.23), eta Oihana Fernandez Barrena eta Maika Ariztegi (6.30) izan ziren hirugarrenak.

### Iñigo Lariz txapeldunorde Fuente De-ko igoera bertikalean



Fuente De-ko Kilometro Bertikalaren 15. edizioa jokatu zuten zapatuan, Kantabrian. Iñigo Larizen proba kuttunetarikoa da, sarrien lehiatu den bertikaletakoa baita, eta igoeretara itzuli denetik gorri markatua zuen egutegian. Guillermo Ramos Muñoz izan zen azkarrena 2,6 kilometroko ibilbidean. Salamankako mendi lasterkariak irabazi berri du Igoera bertikalen Espainiako Txapelketa eta sasoi betean jarraitzen du. 33 minutu eta 12 segundoan gainditu zuen 972 metroko desnibela. Iñigo Lariz sailkatu zen bigarren postuan, 35:41ko denbora eginda.

### 3x3 saskibaloia txapelketa, ekainaren 29an

Iaz estreinako edizioak izan zuen harrera ona ikusita, Elgoibarko saskibaloia Taldeak bigarrenkoz antolatu du 3x3 saskibaloia txapelketa. Aurtengoa ere Lekuederren egingo dute, ekainaren 29an. Adin guztietako lagunek parte har dezakete, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Hiru edo lau kidek eman dezakete izena taldeko, 618 259 339 telefono zenbakira deituta edo Instagramen duten kontura (elgoibarst) idatzita. Era berean, taldetik gogora ekarri dute hasi direla hurrengo denboraldirako taldeak osatzen (kadete, junior, senior eta emakumezkoena), eta inork taldera batu nahi badu, zabalik dituela atek.



## Julen Urruzolak bi urterako kontratua sinatu du EON Horneo Alicante eskubaloi taldearekin

**I**rungo C.D. Bidasoa eskubaloi taldeak lagata iritsi zen Julen Urruzola (Elgoibar, 2002/03/05) EON Horneo Alicante taldera, joan den udan. Gauzak ondo joan zaizkio Alacante aldean eta taldea ere gustura gelditu da jokalaria gazteak erakutsitako mailarekin. Hala, hurrengo bi denboraldietarako kontratua sinistu dute bi aldeek. Hori bai, Bidasoak Urruzola berreskuratzeko aukera izango du 2024-2025 denboraldiaren amaieran.

Jokalaria gazteenek garesti dituzte minutuak gorengo mailan, eta euren progresioa ez eteteke beharrezkoa duten esperientzia hori han edo hemen bilatu behar dute. Bidasoako arduradunek erabaki zuten Ohorezko Maila diharduen EON Horneo talde ona izan zitekeela Xabier Barreto eta Julen Urruzola moduko jokalariek eskarmentua hartzeko eta prozesu horretan murgilduta daude orain biak. Bidasoak eskerrak eman dizkie Barretori eta Urruzolari bidasotar gisa erakutsi duten konpromisoagatik eta inplikazioagatik. EON Horneo Alicante taldeko entrenatzailea den Fernando Latorre "oso pozik" dago Urruzolak



denboraldi honetan izan duen bilakaerarekin. "Julenek bilakaera izugarria izan du, eta oraindik gehiago haz daiteke jokalaria gisa; ez du daukan dena eman oraindik. Defentsako lanean gure zutabeetako bat da", adierazi du Latorrek. Elgoibartarrak 32 partida jokatu ditu, Ligako eta Kopako neurketak batuta, eta 18 gol sartu ditu. Taldean jarraitzeko erabakia hartzeko erraza izan zela esan du, talde barruan oso pozik dagoela-eta.

### Argazki zaharrak behar ditu Sanlok 25. urteurreneko ospakizunetarako



Sanlo sortu zeneko 25. urteurrena ospatzen ari da eskubaloi taldea eta herritarrei laguntza eskatu diete, 1999tik 2008ra bitarteko taldeen argazkiak batu nahi dituztelako. Urte haietako taldeen argazkiak dituztenei, digitalizatu eta [directivasanlo@gmail.com](mailto:directivasanlo@gmail.com) helbidera bidaltzeko eskatu diete. Denboraldia



agurtzeko egiten duten festa egingo dute bihar Sanlokoek, Sigman. Urtemuga bakarrik ez, datorren denboraldia prestatzen ere hasiak dira eta zabalik dute taldera batzeko izena emateko epea. Interesatuak hemen eman behar dituzte datuak: [forms.gle/SwFEXWLZJD5bMuEB7](https://forms.gle/SwFEXWLZJD5bMuEB7)

## Debarroko pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte Kalegoen plazan

**K**alegoen plazako frontoia pilotariz beteko da asteburuan. Batetik, emakumezkoen eta gizonezkoen pala txapelketetako finalerdiak jokatuko dituzte eguenean eta barikuan; eta, bestetik, Pilota Eguna (zapatuan) eta Debarroko Pilota Txapelketako finalak (domekan). Pala txapelketari dagokionean, atzo jokatu zituzten lehen finalerdiak, eta gaur, 18:00etatik aurrera jokatuko dituzte bigarrenak. Maite Mugartegik eta Idoia Arrillagak osatutako bikoteak Karmele Martinez eta Jone Azkoaga izango ditu aurkari, emakumezkoen lehiari. Gizonezkoetan, berriz, iaz txapeldunorde izan ziren Sergio Martinezek eta Ander Condek Igor eta Iker Txurruka anaien aurka jokatuko dute. Ekainaren 21ean jokatuko dituzte finalak. Lagunak Pilota Eskolak Pilota Eguna antolatu du zapatuarako, ikasturteari amaiera emateko. 12:30ean hasiko dituzte partidak Kalegoen plazan eta 13:30ak aldera dominak banatuko dizkiete pilota eskolan aritu diren gaztetxoek.

Domekan ere esku pilota jaialdi dotoreaz gozatzeko aukera izango da plazan. Debarroko Pilota Txapelketa beteranoaren 75. edizioko finalak jokatuko dituzte, 11:00etatik aurrera.



Txapelketan parte hartzen duten pilota taldeetako batek antolatzen du txapelketa urtero, eta aurtengoa Lagunak Pilota Eskolak antolatuko du Elgoibarko Udalaren, Udal Kirol Patronatuaren eta Baltasar elkartearen laguntzarekin.

---

### Goñati udal gimnasioaren kudeaketa lizitazioa atera du Mendaroko Udalak

Goñati eraikinean dagoen udal gimnasioa kudeatzeko kontratua prozedura irekiaren bidez esleitu du Mendaroko Udalak. Kontratuak lau urteko iraupena izango du, eta interesa duten enpresek ekainaren 7tik uztailaren 2ra aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak. Gimnasioaren ordutegia aldatuko dutela ere jakinarazi du Mendaroko Udalak, gimnasioaren erabiltzaileek egindako eskaerei jarraituz. Lizitazioaren oinarrietan zehaztu duten bezala, publikoarentzat irekia egongo da, gutxienez, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 12:30etara eta 15:00etatik 20:30etara; eta, larunbatetan 09:00etatik 12:00etara. Kontratazioaren espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa Euskadiko Kontratazio Plataformako Mendaroko Udalaren



profilean argitaratuko dituzte, eta proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira.

**LANA****Eskaintza**

Elgoibarko ile-apaindegi batean lan egiteko pertsona behar da, lanaldi erdira edo osora. Berehala lanean hasteko.

**634 261 485 (Nerea)**

Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun osoz lan egiteko pertsona behar du, ekaina bukaeran edo uztailea hasieran hasteko. Gidabaimena ezinbestekoa da. CV bidaltzeko: [hornikuntza@gmail.com](mailto:hornikuntza@gmail.com)

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut.

**603 503 689**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Esperientzia handia.

**600 082 254**

Pertsona langile eta arduratsua garbiketa lanetarako prest. Esperientzia handia. Orduka lan egiteko prest.

**632 708 954**

Pertsona langilea eta arduratsua adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia.

**674 810 717**

Adinekoak zaintzeko prest, etxeko langile moduan edo orduka. Berehala lanean hasteko prest.

**641 756 213**

Uztaileko goizetan umeak zaintzeko prest nago.

**688 825 773**

Lan bila nabil. **631 892 149**

Umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

**631 671 845**

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. **611 215 176**

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, eta etxeko lanetan aritzeko ere prest nago. Sara dut izena. **604 855 097**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, orduka, etxeko langile moduan edo gauzez. Esperientzia handia. **632 229 972**


Garbiketa lanetarako prest nago, orduka. Adinekoak ere zainduko nituzke, arratsalde. Esperientzia handia eta erreferentzi onak ditut. **632 721 342**

Adinekoak zainduko nituzke, ahal dela goizez. Esperientzia handia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. **638 857 100**

Adinekoak zainduko nituzke gauzez, ospitaleetan, oporraldian nahiz bestela. Orduka lan egiteko prest. **631 425 686**

Garazi naiz, Magisteritza ikasten ari den 20 urteko neska. Udan haurrak zainduko nituzke. Ordutegi malgua. **644 269 968**

  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean urteak dira ez dugula fatxada berritzeko obrarik egin, bileretan sekula ez dugulako gai horren inguruan erabakirik hartzen eta hurrengo batean aztertze lagatzen dugulako beti. Niri iruditzen zait berritzeko premia duela fatxadak, zati batean oso hondatua dagoelako. Jakin nahiko nuke nola landu behar dugun gai hau batzarretan erabakiren bat hartu ahal izateko.</b></p> <p>Mantentze lanak egitea komeni denetan administratzaileak presidenteari eskatu behar dio obrak lehenbailehen hasteko eta hark bizilagunei, gerta daitekeelako mantentze lanak ez egiteagatik fatxadako zatiren bat-edo jaustea. Obra egin beharraz ohartarazi arren, presidenteak kasurik egingo ez balu, bera izango litzateke gerta daitekeenaren erantzule, beti ere, jakina, ohartarazpen hori egon dela baieztatuko balitz eta presidenteak obra hori eginarazteko jarraitu beharreko pausoak eman ez dituela frogatuko balitz. Obra atzeratzea bizilagunek eurek erabaki badute batzarrean, bizilagunak izango dira gerta daitekeenaren erantzule.</p> <p><b>AHOLKUA: Legeak dio ezinbestean egin behar diren obren kasuan ez dela batzarren onespentik behar aurrera egiteko. Presidenteak erabakiko du egin edo ez. Hori bai, batzarrean aztertu beharko dira aurrekontu ezberdinak eta haiek aukeratzeko dute zein aukeratu. Obra hori egitea eskatzen duena Administrazioa denean, batzarrak ez du zeresanik izango gainan.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,  
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Mikel**,  
asteartean 6  
urte egingo  
dituzulako. Oso  
ondo pasa!  
Etxekoan partez.



Zorionak, **Xune!**  
Muxu handi bat  
etxekoan eta  
lagunen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## OHE-IZARETAN ESKAINTZA

**%50 poliesterra eta %50 kotoia duten ohe-izarak 18€tik aurrera**  
(neurri guztiak: 80 zm-tik 2 m-ra)

**%100 Kotoia duten ohe-izarak 25 €tik aurrera**

**Aukera paregabe hau ez galdu! Bisita gaitzazu!**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

KUTXA  
FUNDA  
ZIOA

Gipuzkoa mugitu,  
Gipuzkoa sentituz.

# Batzen gaituenak, mugitzen gaitu.



Ezagutu Kutxa Fundazio berria.  
[www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat](http://www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat)



## 14 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408.

**19:00** Inazio Bereziartua dantza eskolako ikasturte amaierako jaialdia. Kalegoen plazan.

**19:00** Txirristaka Saria bertsopaper lehiaketako sari banaketa ekitaldia, Mendaroko udaletxean.

**19:30** 'Txirristaka akorduan, gaurkoak kantuan' bertso saio ibiltaria, Mendaron, Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin. Azpilgoetan hasi eta Mendarozabalen amaitu.

**20:30** 'Bulego Japan Tour' dokumentalaren emanaldia eta diskofesta, Mendaron, Gaztelekuan.

**19:30** Palestinaren aldeko manifestazioa, Maalako parkean hasita.

## 15 ZAPATUA

**11:00** San Antonio Eguna, Urruzuno auzoan. Meza, eta segidan, hamaiketakoa. Eguerdian, bazkaria egingo dute.

**20:30** Mikroantzerkia. Kultur Kafean. Sarrera 5 euro.

## 16 DOMEKA

**10:30** Debarroko pilota txapelketako finalak. Kalegoen plazan.

**12:30** Debabarreneko orkestra sinfonikoaren kontzertua. Herriko Antzokian.

## 19 EGUAZTENA

**18:30** Iktusari buruzko hitzaldia. Duintasunak eta Euskadiko Antikoagulatu Pertsonen Elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**20:00** Birakaren ikasturte amaierako jaialdia.

## 20 EGUENA

**19:00** CD Elgoibarren batzar nagusia. Musika Eskolan.

**19:00** Niala magoaren ikuskizuna. Tertuliak egitasmoaren ikasturte amaierako emanaldia. Kultur Etxeko sotoan.

**20:00** Ameikutz musika eskolako ikasturte amaierako jaialdia, Mendaron. Herriko Enparantzan.

**20:00** Birakaren ikasturte amaierako jaialdia.

## 21 BARIKUA

**17:00** San Joan Egunaren bueltako ekintzak, Mendaroko ludotekan.

**18:30** Pala txapelketako finalak. Kalegoen plazan.

**19:00** Ekigain. Maalatik, Sallobenterako bidea egingo dute, eta han udari ongietorria egingo diote.

**20:00** Birakaren ikasturte amaierako jaialdia.





EH Bildu, lehen indarra Elgoibarren.

Eskerrik asko!

ehbildu



## Eta, Debabarrenean zer?

### Minbiziaren aurkako martxa, Eibarren Ekainak 15, zapatua.

Minbiziaren kontrako martxa egingo dute Eibarren bihar, hirugarren urtez. 11:00etan hasiko dute martxa, Untzaga plazan, eta hiru bat kilometroko ibilbidea osatuko dute, Untzagan amaitzeko. Martxa hasi aurretik, zumba saioa izango da Untzagan, Kaxa dantza taldekoek zuzenduta. Dorsalak eta kamisetak *RockTheSport.com* webgunean, Eibarko jubilatuek etxeetan, Amaña es la Caña kioskoan, eta Minbiziaren Aurka elkarteak Eibarren duen egoitzan (Ardantza, 11) eskuratu daitezke.



### 2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

### EKAINA

14 BARIKUA	■ Ibañez
15 ZAPATUA	Garitaonandia
16 DOMEKA	Garitaonandia
17 ASTELEHENA	Arriola
18 MARTITZENA	■ Fernandez
19 EGUAZTENA	Yudego
20 EGUENA	■ Oruesagasti
21 BARIKUA	Arriola

### 2024 urte guztian, gauzez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
943 204 230

■ Fernandez:  
Herriko  
Enparantza, 4  
Garagartza  
(Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1  
(Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384



## Zabaldtu atea BARREN astekariari, eta egin zaitez harpidedun!

Aspaldi bazabiltza BARREN etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

### 943 744 112

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



## EXPRESS ESKAINTZAK!

### BOSCH SMS4HTI00E ONTZI-GARBIGAILUA





## 599 €

- 13 zerbitzu
- 4 programa
- 3 funtzio
- Variospeed sistema
- Hatz marken kontrako altzairu herdoilgaitza



Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Aiora  
Garaizabal  
Askasibar

5 urte, Elgoibar



*"Mendiko etxea"*



Marina  
Mekolalde  
de la Cruz

4 urte, Elgoibar



*"Uda"*

# HITZAK OSATU

Hitzak osatzeko letrak egoki ordenatu eta ondoren marraztu!



A S E G U



A K U R G A N O



# ASMAKIZUNAK

Ea asmatzen dituzun asmakizun hauek!

*Aurrean punta bi, atzean zulo bi. Zer naiz?*



*Gaua bezain beltza, buruan estalkia eta ez naiz aterkia.*




*Lau gara guztira eta laurak urtearen barruan bizi gara.*



# HITZALAK

Asmatuko al duzu Pinotxoren itzala zein den?



Erantzunak: \_\_\_\_\_



Asmakizunak:  
 GURAIZEAK  
 TXAPELA  
 URTAROAK

Hitzak osatu:  
 SUGEA  
 KANGUROA



# Magia Tertulia!

Magikoa izango da TERTULIAK programaren aurtengo ikasturte amaiera!  
Alain Zulaika mago elgoibartarra izango dugu gurekin,  
bere azken magia eta mirariekin. Magia bertatik bertara!

**Ekainak 20, osteguna - 19:00 - Kultur Etxeko sotoa**

Doan izango da, eta TERTULIAK programan parte hartzen ez dutenek ere, 16 urtetik gorakoek,  
ateak zabalik izango dituzte.

